

Inportanteenaren haritik

(Nabarraldeko kide batek, hamaika hitzaldi eman ondoren)

GAIZKA ARANGUREN URROTZ
KAZETARIA ETA NABARRALDEKO KIDEA

Gaitez historiakale nostalgikoaren anapikotasunaz. Ia erabat ezeguna zaigun herri honen historia politikoa bilakaerari so egitea historiakaleen nostalgikoarekin nahastea, Nabarraldeko hitzaldi batera aurkeztuz joatearen frogarria da. Zilegi beko Jokin Muñoz, baina tronpatzen da. Ikusi eta entzun omen zuten hitzaldi haren xedeak ez du zerikusirik berak atera dituen ondorioekin. Sinesgarri egiten zaio ala ez erraten dena, baina hitzaldia eta ekimenaren beraren asmoa zein den ez da asmatu.

Duela 1000 urteko arkadia. Ez du uste Nabarraldeko inongo hitzalditan duela 1000 urteko egoera arkadia zoriontsuztat jo denik. Duela 1000 urte, Europako txoko honetan, bere buruaren jabe zen egitura politiko bat hazela erakusteak ez du erran nahi orduko herritarrek zoriontsu zirenik, egitura politiko hori bazela baizik. Bertzerik ez. Eta norberak eman diezaiola datuari egokien deritzen balioa. Zero baldin bada, zero.

Antso III.a errege feudala. Oso ohikoa dira iraganeko datuei inportantziarik ematen ez dietenen artean era horretako baieztapenak. Eskolan erran zitezenez erdi aroan Europa osoa feudala zela, zertarako sakondu inguru hauek egoeraz? Ezaugarri bereziak aurkitu eta adierluak bezala antolatuta dugun iraganaren harresi eror dakigun? Ez. Pirinioetako txokoa berezitasun juridiko adierazgarriak bazeudela jakiteak kolokan jar dezake garai «feudal» brotxa lodi batez ezabatzeko aukera. Zertarako arakatu herri honen eta iraganeko bere egituraren kultura politikoa, eskolatik irakatsi baziguten

horrelakorik ez zela? Nabarraldeko ez du Antso III.aren existentzia oinarritzen bere etorkizunerako apustua. Ez eta historia hutsean ere. Baina gure historia ezkatua jakiteak norbere hautu politikotan nolabaiteko eragina daukala ukatu daitekeen arren, ez da oso jarraera sinesgarria.

Nafarroa handi bat amets. Ez. Ez Nafarroa handia eta ez amets ere. Nafarroa kontzeptuak ukan dezakeen gaitasun politikoari buruzko hausnarketa bai, ordea. Eskain diezagukueken aukera diskurtsiboen azterketa bai, ordea. Azken 100 urteotan asmatutako kontzeptuei buruzko kritika sakona bai, baina ez historikoki desegokiak direlako, baizik eta gaur eta biharko eraginkorrak ez direlako.

Historia eta eskubideak. «Eskubide historikoak» hitzerik hortzera darabiltezen gurzura salatzen lehenengoa da Nabarralde. Oraingoan oraingo borondareta nagusi, biharko borondareten norabide ildo jakin batetik abiaru dadin lan egitea da errotka. Eta iraganeko pasarteak ezagutzea lagungarri zaigula sinetsita, horiek ezagutaraztea da lanetako bat. Ez bakarra eta ez nagusia. Jakin nahiko nuke zein argudiorik eginen lioke erre Muñozek «*Viabilidad económica del Estado navarro*» edo «*Viabilidad internacional del Estado navarro*» izenburua dararamen hitzaldiei. Etorkizunerako lanean gabilza era, zeregin horretan, gizabanako bakoitzaren imaginario kolektiboa osatzen duten erreferentzia mota guztieta eragiteko asmoa dugu, ahal izanez gero bederen. Imaginario kolektibo hori osatzen duten erreferentzia simboliko, paisajistiko, ekonomiko, juridiko, literario eta baita historikoak barne. Denak. Gure nortasun politikoaren hautua kontzientzia edo inkontzienteki egiten dugunak, gure baitan erroten den imaginario kolektibo horren arabera egiten baitugu. Erreferentzia den

esparru bakoitzari norberak ematen dion garrantzia neurteza norberari dagokio. Nabarraldeko ez dauka horretan mende bakoitzeko tona kopuru jakinik aholkatzen. Ez dagokio.

Historia orainaren eta geroaren giltza. Norberak nahi dion garrantzia eman diezaioteko historiak eskaini ditzakeen erreferentziei bere imaginario kolektiboa osaketan. Hainbatendako oso garrantzitsua dela ezin uka.

Proiektu politikoak eta dokumentu sekretuak. Jakiteko dago zer ote diren Muñozentzat gaur-gaurko parametroak. Gaur-gaurko egituraketa politiko? Gaur-gaurko dokumentu sakratuak? Gaur-gaurko dokumentu sekretuak? Lehenago aipatu dudan moduan, gaur-gaurko imaginario kolektiboa osatzen dituzten erreferentzien azterketa eta berorik aldarazteko eskaintzetan ezartzen dituguk zereginen parametroak. Ez du uste, beraz, oso urrutigaudenik.

Iragan handi-hunkigarri-epikoak. Ez da onargarri jarraera horiekin parekatzea Nabarraldeko jarduna. Ekimenaren beraren abiapuntuak, ibilbidea eta xedeak ez ezagutzearen ondorioztat jo beharko dugu. (Agian Muñozek ikusi eta entzundako hitzaldian ez genuen behar bezala azaldu, batek dak) Mala ere, ez dakit zergatik uko egin behar duen hain justu gure herriak mundu osoko bertze edozein herri duen bere mitotarako eta zertzelada erromantikotarako txokoari. Etnizismo hutsean antolatutako diskurtsoa da, hain zuzen, Nabarraldeko salazten duena. Horren eragin kaltegarriak ukan duen diskurtsoa ez da guk aldarrikatzen duguna. Baina horrek ez du erran nahi edozein herri bereko dituen mitoi eta pasarte epiko uko egin behar diegunk. Espainolek *El Cid* eta frantsesek *Jeanne d'Arc*. Ez dut uste beraien egungo existentzia politikoa pertsonaia horietan oinarritzen dutenik, bai-

na inork erranen luke beraien imaginario kolektiboa osatzeko lagungarri ez zaizkiela?

Gernika, Amaiur, Noain. Ez dakit Muñozentzat Gernika bota ote zituzten gure Dorre Bikiak. Eta ez nator bat, ikuspegi simbolikotik, Gernika alde batetik eta Amaiur eta Noain bertzetik kontrajartzerekin. Norberak jakinen du zein leku egiten dien, egiten badie, simbolo horiei bere buruan. Baina argi dut, lekuren bat egiteko, ezagutu egin behar direla. Bertzerik ez. Gainera, ez du ulertzen iraganen arteko alde hori. Inork erran al diezake zenbat urtetan egin ote dezakeen euskaldunok atzera gure ibilbide historiko-politikoan erreferentziak antzemateko nostalgikotzat hartuak izan gabe? 25? 50? 150? 500? 800? Non dago nostalgian muga?

Alta, Gernikan, Amaiuren eta Noainen gertatutakoa pixka bat ezagututa, askoz ere eraginkorrago iruditzen zaizkit niri, pertsonalki, Amaiur eta Noain. Bi horietan independentziaren galera sinbolizatzen delakoan nago. Gernikarekin, galdutako independentziaren aztarnak diren uesteko «eskubide historiko» kontrolatuak bertzerik ez.

Duguntxotik eta dukeguntxotik. Nahiko nuke jakin zer ote den duguntxona eta dukeguntxona. Baldin eta hitz horien azpian garatzeko baliagarriak diren bizi-raupenerako baliabide politikoez ari baldin bagara.

Iraganarekin hautsi, soka eten, barne askatasuna. Iraganaren erreferentziak aintzat hartu gabe, gure kultura politikoa ezaguarriak kontuan izan gabe eta barne askatasuna bezalako esamote iheskorretan soilik oinarrituta, Estatu Nazioz osatutako munduan bizirauteko aukera bari ikusten duenak, jo dezala hortik. Bide horretatik herri honek eskaini dezakeen mundua ikusteko eraren bizi-urupena bezalako aukerak ikusten dituenaren lana ere ezinbertzekoa baitugu. Hori bai, sofismoaren autokonplazentziaren magaletan lokartu eta bere burua zuritzezko asmoz, otoi, ez gaitzala inork sparring merke gisa erabili. Hori bai, eztabaidarako, beti prest. Adeitatu-nez.

Eraso betean

JOSE LUIS ALVAREZ ENPARANTZA,
'TXILLARDEGI'
IDAZLEA

Atzo, ekainaren 7an, edozer idatzitako baino lehenago, neure besarkadarekin beioena helerazi nahi diot Fernando Arburua aberkideari. 23 urte erdi gartzelaz gartzela. 1981ez geroztik Espainiako presondegietan baren beilari.

Zer izen merezi du horrela jokatzeko duen Estatuak?

Ongi etorri! Bihozkorrena niketzu zugarraurdi jarotari. Corellatar astoari gaitzi bazajo ere, Zugarraurdi Nafarroa da.

Eta goazen erasoaz hitz egitera. Herenegun gertatua. Eta Donostiako Zubietako jateixc famatu batcan.

Donostiako Ikastola bareko haurrek eta senitarteak elkaturik.

Bero itzela. Eta taberna hurbildu gara:
— Borila ur bat, mesedez.
— ¿como?
— Ura, faborez.
— ¿cómo?
— Agua, cojones! — nik ozenki.
— Yo no tengo por qué entender el vasco! — rabernariak ozenkiago. — *Un retrocincenta y cinco!*

Horretan gaude, adiskideok. Eta orain dela urte batzuk ez geunden horretan. Gu likidatuzkotan ausartago daude.

Barbara Dürkhop-ek bere aldetik joan den astean: «*Prefiero aprender ruso que aprender vasco*». Beste bospasai hizkuntza omen dakizki. Eta lasai asko boto eskatzen Fuskal Herrian. Eta boto asko bilduko. Eta ez da PPkoa.

Hots, nolatan iritsi garen horeraino ulertzea ez da, zernahi esanik ere, horren zaila. Fuskararen munduan eraiki den fartsa nabarmen agertzen ari baita. Hauteskundeetan euskaraz negargarri papertxo bat kostata irakurtzen saiatzen diren fartsanteak, lettero «elebidunak» bat-batean kaleetan erasten dituzten fartsanteak, mota guztieta fartsanteen lehorreraketa bitxia.

29 urte pasa dira Franco Hil zenez geroztik. Beltan oso bat joan da. Katalunaren katalantasa finkatuta dago.

Euskal Herriaren euskalduntasuna, berriaz, ez dago inondik inora finkatuta. Mintza gaitzen jator.

Euskaraz hitz egitea militantz ekintza da 2004 honetan. Purrustadak, «*mi en erderas*» (Donostiako Parte Zaharrean entzuna bertiki), eta «*yo no tengo por qué entender el vasco*», eta beste mila, jasan behar izatea, egungero oia bihurtu dira.

Ehunka aberchale eraldun huts ezagutzen dirut nik (eta zuk ere bai, noski) fran-

tsesez eta ingelesez polito ikasiak. B. Dürkhop-enganetik urrun daudela? Zertan? Bizi guztian barrera «*mi en cristiano*» praktikatu duten horiek, zertan fintsatzen dituzte euskararekiko maitasuna eta errespetua? Nik neuk bederen ez dut ikusten.

Nola ote daiteke oraindik behin eta berriaz lanpostu-den ik plazaratzea hizkuntz eskakizunik gabe? «Ahaztu» egiten omen zaie...

Xabier Mendigurenek esandakoak, horretara, egia huts. Bai. Baina urrun agertzen zaizkigu: «euskaraz ikasi, euskaraz mintzatu, euskaraz irakurri, euskaraz bizi».

Urrun, urrunegi. Eta, eraso betean, 1937 ere orotarazten dute «*crusada anti-vasca*» giro itogarri honetan.

Fuskarari buruz erdaraz hitz egitea onartzen da onenean, euskararen alde ezdaraz egitea ere baiagian. Eudaraz egiten den ber, edozer onartzen da Demokrasiaren eta Aniztasunaren izenaren gure herri zafratu honetan.

Gauza bakar bat ez da onartzen: benetan euskaraz bizitzen hastea.